

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Valle de Trápaga-Trapagarango Udala****SEC-048/2023 Asistentziagatiko dietak. Talde politikoentzako diru-esleipenak**

Udalbatzak, 2023ko uztailaren 28an egindako osoko bilkuran, bestea beste erabaki hau hartu zuen:

30.1.2. Udal talde politikoentzako diru-ekarpena

Udaleko talde politikoei dagokien zuzkidura ekonomikoak, batetik, atal finko bat dauka, talde guztientzako berdina dena, hau da, 542 eurokoa; eta, bestetik, atal aldakor bat, hain zuzen ere, 167 eurokoa zinegotzi bakoitzeko.

Ondorioz, alderdi bakoitzak hilero jasoko duena honako hau izango da:

Talde politikoa Grupo político	Finkoa Fijo (542 euros)/Mensual	Zinegotzi kop. Nº Concejales	Aldakorra Variable (167 euros)	Guztira Total Anual
PSOE	542	6	1002	18.528
BILDU	542	5	835	16.524
EAJ-PNV	542	5	835	16.524
ELKARREKIN PODEMOS	542	1	167	8.174
		17		

1. Hilabetea amaitutakoan dagokion zuzkidura ekonomikoa ordainduko zaio talde bakoitzari.

2. Diru-laguntza honen onuradunak Udalean legez eraturako talde politiko guztiak izango dira.

3. Udal talde bakoitzak (guztiak), diru-laguntza honen onuradun izan ahal izateko, ondoko betebeharrak bete beharko ditu:

- Udal Talde politikoaren identifikazio-zenbaki propioa eta berezia eskuratu.
 - Bera titular den kontu korrante zenbakia lortu.
 - Taldearen gastu eta diru-sarreraren kontabilitatea eraman oinarriotan ezarritako eran.
 - Kontabilitateko idazpenekin lotutako gastuen eta diru-sarreraren egiaztagiria gorde.
4. Zuzkidura horiek ondoren aiaptukodiren gastuetarako bakarrik erabiliko dira, eta ezingo dira ezelan ere erabili indarreko legediak debekatuta dituen gastuetarako:
- Bulegoko materiala eta ordenagailuen kontsumigarriak erosteko, fotokopiak egiteko eta inbentariaezina den materiala erosteko.
 - Kanpoko pertsonala kontratatzeke –lan-zuzenbideak onartzen duen edozein erataria– udal-taldearentzat beharrezko diren lan administratiboak edo Aholkularitza-zerbitzuak egin ditzan.
 - Udal gaiei buruzko txostenak kontratatzeke –euren jarduera legez gauzatzen duten profesionalekin edo enpresekin–. Atal honetan inkestak egiteko enkarguak ere sartzen dira.
 - Herritarrei informazioa zabaltzeko; horretarako, aldizkariak, irriatiak, telebista edo web-orriak erabilia; beti bere, informazio hori udal gaien gainekoa bada.
 - Udal-jardunarekin zuzeneko lotura daukaten prestakuntza-jardunaldiak edo ikastaroak egiteko.
 - Lokomozio gastuak, dietak edo mantenuak ordaintzeko; beti bere, taldeko ki-deen edota zinegotzien lanari lotuta badago.



- g) Alderdi politikoei diru-ekarpenak egiteko, hau da, udal talde horretako kideak hauteskundeetara aurkeztu ziren zerrendari dagokion alderdi politikoari ekarpenak egiteko; betiere, alderdi politikoen finantzazioaren gaineko araudiak ezarzen dituenarekin bat etorrira. Ekarpene horiek alderdi politikoen eta udal taldeen arteko hitzarmen bidez arautuko dira.
- h) Edozein udal-egintza aurkaratzeak eragindako gastu judizialak ordaintzeko.
- j) Beste edozein gasturi aurre egiteko, beti bere, indarreko legediarekin bat badator.

5. Talde politikoei zuzkidura ekonomikoen kontabilitate bereizia egin behar dute, alderdi politikoei egokitutako Kontabilitate-planak ezarritakoari jarraituta. Horretaz aparte, urte bakoitzeko urtarilaren 30ean Udalbatzaren Kontu-hartzaile Orokorriari eta Idazkariari aurreko urtean egindako gastuen berri (justifikatuta) eman beharko diete, gastu horien egiaztagiria aurkeztuta, baita gastu horiek egin dituen kontu korronteko banku-mugimenduen zerrenda ere. Era berean, hitzarmena eginda izanez gero, urteko diru-ekarpenen gaineko urteko memoria ere aurkeztu beharko dute.

Kontu-hartzailetzak aukera izango du Justifikazioko kontu hori fiskalizatzeko, egikaritze-oinarrietan ezarritakoa betetzen den egiaztatze aldera; eta jarraian Osoko Bilkuran onartuko da. Behar bezala egiaztatuta ez dauden ekitaldi horretako kopuruak bueltatu egin beharko dira Udal Diruzaintzara.

Diru-sarrerak eta gastuen gaineko aitorpen horiek gainerako udal taldeen esku egongo dira; aukera izan dezaten, egoki baderitzote, Osoko Bilkurari beste taldeen kontabilitatea eskatzeko, egindako gastuen ordainagiri eta guzti.

Legealdiaren azken urtean, Udaleko talde politikoei maiatzaren 31 baino lehenago aurkeztu beharko dute justifikazioa Kontu-hartzailetza Orokorrean, eta azken justifikazioko kontuari lotuta jaso dituzten zuzkidurak likidatu beharko dituzte, soberako zuzkidura Udal Diruzaintzara bueltatuta, baldin eta dotazio hori behar bezala justifikatutakotik gorakoa izan bada. Udalbatza berria karguaz jabetu baino lehenago egin beharko dira likidazioak.

30.1.3. Bertaratzeagatiko ordainsariak

Dedikaziorik (ez eksklusiborik ez partzialik) ez daukaten ordezkari politikoei, partaide diren Kide Anitzeko Organoen batzarretara joateagatik, ondokoa kobratuko dute:

Kide anitzeko organoak Organo colegiado	Bertaratze zenb Importe asist.
Udalbatza Pleno	150,00
Gobernu Batzardea Junta de Gobierno	112,65
Informazio Batzardeak Comisiones informativas	100,00

Tokiko Gobernu Batzarretara eta Informazio Batzardeetara joaten diren zinegotziek gehienez ere ordaindu beharreko bertaratze-kopuruaren muga bat izango dute, hau da: Tokiko Gobernu Batzarreko kideei gehienez 7 bertaratze ordainduko zaizkie, lehenik eta behin Gobernu Batzarreara joatea lehenetsiz eta, ondoren, batzardeetara joatea; Tokiko Gobernu Batzarrekoak ez diren gainerako zinegotziei gehienez 6 asistentzia ordainduko zaizkie.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75,3. artikuluan xedatutakoaren arabera, bertaratzeagatiko zenbateko horiek benetako konkurrentzia eskatuko dute kobratu ahal izateko. Ondorioz, aurkeztutako justifikazioak soil-soilik hartuko dira kontuan, zinegotzi orok kide anitzeko organoetara joateko duen betebeharrak politikoen ondorioetarako, eragin ekonomikorik gabe.

Sortutako zenbatekoak hilabete igarotakoan ordainduko dira.



Joan-etorriengatiko, bazkariagatiko, gauagatiko eta abarrengatiko dietak, langileen-tzako diren erregimen eta zenbateko berekoak izango dira zinegotzientzat.

3 Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 85/1985 Legearen 75. artikuluan xedatutakoa betez, eta akordio hau onartutakoan eta 2023-2027 tarteko agintaldian zehar izango du eragina. Era berean, Udal Idazkariari, Kontu-hartzaileari, Diruzainari eta Udal honetako Saitetako buruei jakinarazo zaie.

4. Dedikazio eskusibo edo partzialeko karguak betetzen dituzten Udalbatzako ki-deek ezingo dute ezelako ordainsaririk jaso Udaleko diruz hornitutako enpresetako administrazio-kontseiluetan parte hartzeagatik, ezta udal kontrolpekoetan edota Udalaren mendeko erakunde autonomoenetako kontseiluetan parte hartzeagatik ere. Erakunde horiek eurek adostuko dituzte dagozkien zenbatekoak eta eurei dagokien aurrekontuetan agertuko dira.

5. Taldeentzako esleipen gisa adierazitako kopuruek eta kide anitzeko organoetara joateko kontzeptuetan finkatutakoek erabaki hau osoko bilkuran hartzen denetik aurrera izango dituzte ondorioak.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2023ko abuztuaren 2an.—Alkatea, Miguel Ángel Gómez Viar